

## II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko uztailaren 17ko erabakia, Livia Claudia López Gutiérrez aldi baterako ordezteari buruzkoa**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez, Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziaren esku utzi ziren Kirol eta Osasun Sailaren inguruan Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkion zenbait eskumen.

Zinegotzi hori amatasun-bajan dago, uztailaren 6az (astelehena) geroztik. Hori dela eta, lanera itzuli bitartean hura ordezkatzeko duena izendatu beharra dago. Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrak Livia Claudia López Gutiérrezen esku utzi zituen eskumenak Iñaki Gurtubai Artetxeri esleituko zaizkio aldi baterako.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.2. artikulua ildotik, erabaki proposamena hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide den Iñaki Gurtubai Artetxe zinegotziaren esku uztea, Livia Claudia López Gutiérrez amatasun-bajan den bitartean, edo besterik ebatzen ez den bitartean, Kirol eta Osasun Sailari dagozkion zeregin hauek:

a) Lizentziak ematea.

b) 80.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obren kontratazioa eta 100.000,00 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten hornidura eta zerbitzu-kontratuak, kontratu pribatuak eta administrazio-kontratu bereziak.

Zerbitzu-emakiden eta obra-emakiden arloko kontratazioa Tokiko Gobernu Batzarrarentzat erreserbatuta geratzen da.

c) Aurreko b) letran azaldutako gastuen betebeharrak baimentzea, erabiltzea eta aitortzea.

d) Tokiko Gobernu Batzarrak obren, zerbitzuen, hornikuntzen, eta bestelako administrazio-kontratuen gaineko kontratazioak esleitu ondoren, horiek gauzatzearen ondorio diren obra-egiaztagiriak (azken egiaztagiria barne), fakturak eta beste onestea, kontratu bakoitzeko edukia osotasuna edo zati bat izanda ere.

e) Zigortzeko ahalmenaz baliatzea.

Azken xedapena. 2020ko uztailaren 6an jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 3an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**